

Beste urte batez, itxi berri dugun urtearen balantzea egin dugu urtarrileko aldizkari honetan, eta gogoz helduko diegu 2016ko erronka berriei.

FAKULTATEKO KONTSUMOAREN DATUAK

Hiruhilekoko datuak

PAPERA (Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotza)

URRIA	AZAROA	ABENDUA
38.500 unitate	32.000 unitate	22.000 unitate

Abenduan kontsumitu da gutxiena lauhileko osotik, Fakultatea lasaiago egon delako eta azken bi asteetan eskolarik ez delako eman.

KARTUTXOAK/TONERRA (Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotza)

	2015eko LAUGARREN HIRUHILEKOA
Inprimagailuetako kartutxoak	11 unitate

Birziklatutako 11 kartutxo jarri dira.

BIRZIKLATZEKO EDUKIONTZIETARA BOTATAKO HONDAKINAK (Fakultatea)

	URRIA	AZAROA	EKAINA
Ontziak*	119 kg	87,5 kg	59 kg
Papera**	1.290 kg	1.120 kg	680 kg

*Kg = kilogramoak (litro 1 paper = 0,32 kg eta litro 1 plastiko 0,05 kg)


**Beotibar Recycling SL enpresak emandako datuak

Urteotako datuen erkaketa

Azken hiru urteotako kontsumo datuak:

	2012	2013	2014	2015
Erabilitako papera	453.000 unit.	325.000 unit.	300.000 unit.	317.500 unit.
Inprimagailuetako kartutxoak	56 unitate	24 unitate	69 unitate	40 unitate
Funtzio anitzeko fotokopiagailuen tonerra	22 unitate	14 unitate	9 unitate	8 unitate
Ontzien bilketa	daturik ez	430 kg	873,5 kg	808,5 kg
Beira	daturik ez	daturik ez	daturik ez	39,1 kg

2015eko datuak, oro har, onak dira, eta bide horri eutsi zaio Fakultatean Ekoscan araua ezarri zenez geroztik.



Oro har, urteko paper kontsumoa handiagoa izan da aurrekoarekin alderatuz Atezaintzetan, Idazkaritzan eta Dekanotzan. Urteko lau hilabetetan (otsailean, apirilean, abuztuan eta abenduan) kontsumoa txikitu egin da aurreko urtearen aldean; gainerako hilabeteetan, ordea, gaintitu egin dugu kontsumitutako paper orrien kopurua. Aurtengo zenbait ekitaldi berezi direla eta (urtarrileko jarduera praktikoak, ekaineko titulazio akreditazioak, lehen urteko ikasleentzako informazioa...), areagotu egin da paperaren kontsumoa, eta 2014koa baino zertxobait handiagoa izan da. Gu guztioi dagokigu egoera horri buelta ematea eta 2016a Fakultatean paper gutxien kontsumitzen den urtea izan dadin lortzea.

Bestalde, aurtien iaz baino gutxiago erabili dira birziklatutako kartutxoak (ingurumen inpaktua murrizten dute): 40 erabili dira, eta iaz 69. Hainbat edukieratako kartutxoak lor daitezke, eta, beraz, edukiera handiagokoak hautatu dira. Funtzio anitzeko fotokopiagailuen tonerraren kopurua ia-ia 2014ko berbera izan da.

Ontzien gaikako bilketa % 7,5 urritu da. 2014an izugarri areagotu zen bildutako ontzien kopurua: % 203 gehiago bildu ziren, Campusean supermerkatu bat ireki zela eta. 2015ean, oro har ez da aldatu zifra hori.

Aurtengo nobedade nagusia beiraren gaikako bilketa izan da, eta hori berri oso ona da. Ez daukagunez aurreko urteetako daturik, ezin da konparaziorik egin, baina baieztatu dezakegu beira bilketari esker 39,1 kg beira birziklatzea lortu dugula.

Paperik Gabeko Egunaren hirugarren edizioa

Iazko abenduaren 11n, **Paperik Gabeko Eguna** antolatu zen Fakultatean, hirugarren urtez jarraian. Joan diren bi urteetan egunak izan zuen harrera ona ikusita, paperik gabeko beste egun bat antolatzea erabaki genuen, eta Fakultatearen egun propio gisa finkatzea. Aurreko edizioetan bezala, jardunaldi horren helburua izan da jendea paperaren erabileraz hausnartzera gonbidatzea, paper gutxiago kontsumitzea lortze aldera.

Aurreko urteetan bezalaxe, oraingoan ere kontatu dira Atezaintzetako, Dekanotzako eta Idazkaritzako fotokopiagailu nagusiek zenbat fotokopia egin dituzten ekitaldiaren aurreko ostiraletan, Paperik Gabeko Eguneko kopuruarekin alderatzeko. Hau izan da 2015eko Paperik Gabeko Egunaren emaitza:



Fotokopiagailuak

EGUNA	02/10	09/10	16/10	23/10	30/10	06/11	13/11	20/11	27/11	04/12	BATEZ BESTEKOA (aurreko 10 ostiralak)	PAPERIK GABEKO EGUNA
FOTOKOPIAK	638	977	964	753	636	741	1342	1303	1620	871	984,5	385

Paperik Gabeko Egunean % 60,9 fotokopia gutxiago egin ziren, aurreko 10 ostiraletan egindakoen batez bestekoarekin konparatuta. Zifra nahiko handia da hori, baina datu sinbolikoa baino ez da, agerian uzten baitu benetan posible dela eguneroko paper kontsumoa murriztea. 2015ean paper gehiago kontsumitu dugu aurreko urtearen aldean; hori dela eta, kontzientzia handiagoa hartu behar dugu, eta, ahal dela, paper gutxiago erabili.

Urteko egun guzti-guztiak egin behar ditugu Paperik Gabeko Eguna bezain arrakastatsu.



Paperezko soinekoen erakusketa Fakultateko sarreran

Gainera, aurtengo Paperik Gabeko Egunarekin batera, erakusketa berezi-berezi bat jarri genuen: **Gueñesko Paperezko Soinekoen Lehiaketa Internazionalaren** azken edizioetako hamar bat soineko erakutsi ahal izan genituen Fakultateko sarreran. Erakusketa horren bidez, ikus dezakegu zer-nolako gauza liluragarriak egin ditzakegun papera egoki erabiliz gero. Ekoscaneko kideek eskerrak eman nahi dizkio **Enkarturri**, Paperik Gabeko Egunerako soinekoak uzteagatik.

Ba al zenekien...?

Azaroaren 30etik abenduaren 11ra bitartean, Klima Aldaketari buruzko Nazioarteko XXI. Biltzarra (COP21) egin zen Parisen. 195 herrialde bildu ziren (45.000 partaide guztira), berotegi gasen isuriak murrizteko munduko akordio bat lortze aldera.

Hala, COP21 biltzarraren azken egunean, akordio historiko bat lortu zuten: aurreneko aldiz, mundu osoko kideek konpromisoa hartu zuten "tenperaturei industriaurreko mailak baino 2 gradu beherago eusteko eta areagotzea asko jota 1,5 gradukoa izan dadin ahalegintzeko". Hala eta guztiz ere, oraingo ahaleginak ez dira nahikoak mende bukaerarako tenperatura "bi gradu baino askoz gutxiago" areagotzea lortzeko, horixe baita itunaren helburua. Akordioa sinatu duten herrialde guztiek emisioak mugatu beharko dituzte, baina herrialde garatuak, hori bai, ahalegin handiagoa egin beharko dute.

Akordioa nahitaez bete beharrekoa izateko, berotegi gasen mundu osoko isurien gutxienez % 55 hartzen duten 55 herrialdek berretsi behar dute. Ituna sinatzen eta berresten duten guztiek (hurrengo udaberritik aurrera) gas mugak ezarri beharko dituzte.

Itun horren bitartez, Parisen bilduriko 195 herrialdeetako ordezkariak onartu dute klima aldaketaren arazoa egon badagoela, eta, horrez gain, aitortu dute gizakia bera dela tenperaturaren gorakadaren erantzule.



Eta... Zer egin dezaket nik?

Antolatu zure dokumentuak ordenagailuan, eta erabili eskanerra kopiarik ez egiteko. Hori oso baliagarria izan daiteke, adibidez, ikasleen lanak gordetzeko, ez baitaie fotokopiarik atera beharko.

Gutun azal birziklatuak

Hemendik aurrera, Fakultateak gutun azal birziklatuak erosiko ditu. Horrela, urrats bat gehiago egingo da iraunkortasunerako bidean.

Baterien bilketa

Bateriak biltzeko edukiontzi berri bat jarri da Fakultateko sarreran, atezaintzan. Sakelako telefonoen, ordenagailuen eta halakoen bateriak bota ahalko dituzu hara, birziklatzeko.

Papera biltzeko edukiontzia

Papera biltzeko edukiontzi bat jarri da Administrazio eta Zerbitzuetako langileen jantokian. Hartara, are gehiago bereiziko ditugu hondakinak.

Datuen iturria:

- ✂ <http://www.elmundo.es/ciencia/2015/12/12/566be5edca4741417e8b4609.html>
- ✂ http://internacional.elpais.com/internacional/2015/12/12/actualidad/1449910910_209267.html
- ✂ https://es.wikipedia.org/wiki/XXI_Conferencia_sobre_Cambio_Clim%C3%A1tico
- ✂ http://www.bbc.com/mundo/noticias/2015/12/151211_cumbre_clima_paris_cop21_acuerdo_az

Mesedez ez inprimatu aldizkari hau, espresuki pantailan ikusteko eginda dago. Aurrez dezagun toner/tinta eta papera!

Hemen proposatutako ideien bat gauzatu nahi baduzu eta ez badakizu nola egin, edo iradokizun, ideia edo proposamenen bat baldin badaukazu, jar zaitez gurekin harremanetan honako helbide elektroniko honetara zuzenduta:

gkz.ekoscan@ehu.es